

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basaurin etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari behin betiko onespena eman zaio.**

2019ko martxoaren 28ko osoko bilkuran Udalbatzak hasierako onespena eman zion Basaurin etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari. Erabaki hori 2019ko apirilaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, jendaurrean jartzeko epean zehar. Bada, ez denez alegaziorik ez iradokizunik aurkeztu, jotzen da aipatutako Ordenantza behin betiko onetsita dagoela.

**ZIOEN ADIERAZPENA**

Gazteek ezaugarri jakin batzuk dituzten etxebizitzak alokatzeko laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak arautzen ditu Ordenantza honek. Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa aintzat hartuta egindako testua da.

Finean, Ordenantzaren helburua zera da: sustatzea gazteek, batez ere, Basaurin alokairuzko etxebizitza lortzea, beren emantzipazio-prozesuan aurrera egin, eta aukera izan dezaten berezko bizi-proiektua garatzeko.

**I. KAPITULUA****BALDINTZA OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen abiapuntua da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen amaierako laugarren xedapena, zeinak dioen administrazio publikoek alokairua sustatu behar dutela etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten gizarte-kolektiboen artean. Horren harira, etxebizitza alokatzeko diru-laguntza jaso dezaketenek bete beharreko baldintzak, laguntza horien zenbatekoak eta bestelakoak arautzen dira hemen.

Aurreikusitako laguntzek, beraz, ohiko etxebizitza izango denaren alokairuaren zati bat ordainduko diete 18 eta 22 urte bitarteko gazteei, baldin eta egiaztatzen badute etxebizitza alokatzeko kontratu baten titularrak direla, eta kontratu hori indarrean badago laguntza-eskabidea aurkezten duten ekonomia-ekitaldian.

**2. artikulua. — Organo eskuduna**

Udalbatza da Ordenantza hau onesteko eskumena duen organoa. Hala xedatzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 9. artikulua, eta Lege bereko II. tituluko 36. atalak (zeinak gazteria-politiken plangintza, ordenazioa eta kudeaketa arautzen baititu). Hartara, Ordenantza izapidetuko da Toki Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legeak xedatutako moduan.

**3. artikulua. — Araudi aplikagarria**

Ordenantza honek eta berau onesteko unean indarrean dagoen legeriak finkatuko dituzte bai diru-laguntzak emateko irizpideak, bai onuradunaren eta laguntza-emaitza-aren arteko harreman juridikoa. Ordenantza honetan xedatutakoaz gain, beraz, honako hauek ere arautuko dituzte alokairurako diru-laguntzak:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsia.



- Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorra (2005eko urtarrilaren 1).
- Etxebideren araudia: Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua alorreko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, eta hura garatzeko aginduak.
- Gizarte-larrialdietako Laguntzei buruzko araudi autonomikoa.
- Aldizkakoak ez diren udal diru-laguntzak emateko udal oinarriak.

**4. artikulua. — Onuradunak**

Indarreko aurrekontu-ekitaldiaren kontura diren laguntzak jaso ahalko dituzte Udal Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan, eta diruz lagun daitekeen aldian zehar, honako baldintza espezifiko hauek betetzen dituzten norbanakoek edo bizikidetzak-unitateek:

- a) Alokairu-kontratuaren titularrak 18-22 urte izan beharko ditu (deialdia egiten den ekitaldian). Salbuespena: Basaurin erroldatuta dauden bizikidetzak-unitateko adin txikikoak (udal zerbitzuek egiaztatuko dute hori). Alokairu-kontratuan, titularrak gain, harekin biziko direnak agertu behar dira —izan ahaide ala ez—.
- b) Kontratuaren titularrak ez diren pertsonak baldin badaude etxebizitzan erroldatuta diruz lagundutako kontratuaren hasiera-data baino lehen, diru-laguntza epean zehar pertsona horiek Biztanleen Udal Erroldan bajaran emateko eskabidea egin beharko dute bai erroldatuek beraiek, bai etxebizitzaren jabeak.
- c) Eskatzailea edota bizikidetzak-unitatearen kideetako bat Basaurin erroldatuta egon beharko da. Horren harira, eskatuko da pertsona hori, azken bost urteotan, urtebetez jarraian erroldatuta egon izana udalerrian, edota, etenak tarteko, hiru urtez erroldatuta egon izana. Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik hasiko dira zenbatzen aipatutako epeak.
- d) Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda egotea, Basaurin etxebizitza eskuratzeko.
- e) Onuradunak, edota, hala badagokio, bizikidetzak-unitateak, 25.000 euroko diru-sarrerara haztatuak izango dituzt, gehienez; eta diru-sarreraren bermerako errentaren zenbatekoa baino handiagoko diru-sarrerara haztatuak, gutxienez. Hala jasotzen da Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren araudian (une honetan, itxitako azken zerga-ekitaldiko datuak daude erregistro publiko horretan).
- f) Onuradunak eta bizikidetzak-unitateko kide guztiek (horrelakorik badago), Basauriko Udalaren zerga, tasa, ariel eta zehapen guztiak ordainduta izan beharko dituzte. Horren guztiaren erantzukizunpeko aitortpena jasoko da eskabide-eremuan.  
Laguntzek, gehienez ere, hiru urteko iraupena izango dute. Dena dela, urtero-urtero eskatu beharko da laguntza, eta baldintzak bete.
- g) Errentamenduan hartutako etxebizitza bizikidetzak-unitatearen ohiko eta etengabeko etxebizitza izatea, edo etorkizunean halaxe izatea. Etxebizitza okupatuta dagoela joko da baldin eta urtean, gehienez ere, hiru hilabetez jarraian hutsik ez badago (bidezko arrazoirik tarteko ez bada).

**5. artikulua. — Etxebizitzek bete beharreko baldintzak**

Laguntza eskatzen duten errentariak alokairuan hartutako etxebizitzek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Alokaturako etxebizitza Basauri udal mugartean egon behar da.
- Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren III. eta IV. eranskinek eraikuntzari, egiturari eta bizigarritasunari buruz jasotako baldintza orokorrak bete behar ditu etxebizitzak.
- Sukaldean, altzariez gain, kozinatze plaka, aska, garbigailua, hozkailua eta erauzgailua egon behar dira; eta komunak, berriz, komunontzia, konketa eta dutxa edo bainuontzia izan behar ditu. Horiek guztiek egokiro funtzionatu behar dute.



Laguntza hauetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
- Azpierrentamenduak.
- Gelen errentamenduak (bizitantze-eskubidea).
- Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
- Bizigune eta ASAP programen barruan dauden etxebizitzak.
- Hilean 650 eurokoa baino alokairu handiagoa duten etxebizitzak.
- Ez dira onartuko urtebetetik beherako kontratuak. Bestalde, kontratu horiek indarrean egon beharko dute laguntza eskatzen den unean (gero laguntza gauzatu ala ez).

## II. KAPITULUA

### ESKABIDEAK

#### **6. artikulua. — *Onuradunaren betebeharrak***

Diru-laguntzen Lege Orokorren 14. artikulua eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorra jasotako ez gain, honako betebeharrak izango ditu onuradunak:

- Diru-laguntza baliatzea hura eman zen xede zehatzerako.
- Basauriko Udalak eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztea.
- Diru-laguntza emateko aintzat hartutako inguruabarretan gertatutako edozein aldaketa jakinaraztea.
- Errentamendu-kontratuan adierazitako etxebizitzan erroldatzea.

#### **7. artikulua. — *Eskabideak aurkeztea: modua, tokia eta epea***

Diru-laguntza hau eskuratu nahi dutenek, Ordenantza honi erantsitako eskabide-eredua aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta (I. eranskina: eskabide eredua).

Eskabide horretan erantzukizunpeko edota zinpeko aitorpena egingo dute, adieraziz onuradunak eta bizikidetzaren unitateko kide guztiek ordainduta dituztela Basauriko Udalaren zergak, tasak, arielak eta zehapenak.

Horrez gain, eskatzaileak, eskabidean, erantzukizunpeko aitorpena egingo du, adieraziz ez daukala Basauriko Udal Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik.

Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du interesdunak:

1. Etxebizitzaren alokairu-kontratua. Kontratu horrek indarrean egon beharko du, diru-laguntza eman ala ez; diruz lagundutako epe osoa hartu beharko du; eta, gutxienez, urtebeteko iraupena izan beharko du. Errentamendu-kontratuan, titularrak gain, harekin biziko diren pertsona guztiak agertu beharko dira — izan ahaide ala ez —.  
Kontratua erregistratuta egon beharko da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritzan.
2. Zinpeko aitorpena, non honako hauek jasoko diren: hala badagokio, beste diru-sarrera batzuk badaudela (Etxebiden jasotakoak ez direnak; eta, bereziki, 4. atalean adierazitakoak), eta horien zenbatekoa; edota beste erakundeetan egindako diru-laguntza eskaerak.
3. Hirugarrenaren fitxa, beteta (II. eranskina).



4. Eskatzaileak, bete beharreko orrian, Udalari eta Bidebi Basauri, S.L.-ri baimena emango die honako hauek egiaztatzeko:
- Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda dagoela, Basauri udalerrian.
  - Eskatzaileak eta, kasua denean, familia-unitateko kide diren guztiek dagokion urtean jasotako pentsio, nomina edo diru-sarreraren egiaztageria. Horrekin batera, hala badagokio, eskabidea egin den urtearen aurrekoari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitortpena.
  - Dagokion urtean jasotako bekak edota bestelako prestazioak (Gizarte-ongizatearenak barne).
  - Hala badagokio, eskatzaileak zein bizikidetzta-unitateko edozein kidek Lanbidetik jasotako etxebizitzarako prestazio osagarria, edota etxebizitzarako prestazio ekonomikoa.
  - Onuradunak edota eskatzailearekin bizi den edo biziko den edozein pertsonak eskatutako gizarte-larrialdietarako laguntzak edota iraunkorrak ez diren Basauriko Udalaren laguntzak.
  - Eskatzailea eta harekin bizi direnak Basaurin eta etxebizitza horretan erroldatuta daudela egiaztatzen duen agiria.

#### *Epea*

Eskabideak honelaxe aurkeztuko dira:

- 2019. urtea: azaroan zehar.
- Hurrengo urteetan: maiatzean, alegia, Basauriko Udalak diru-laguntza hauek ordaintzeko aurrekontu-partida esleitu duen ekonomia-ekitaldi bakoitzeko maiatzean.

#### *Tokia*

Eskabideak aurkeztu ahalko dira Basauriko Udalean (Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan), Bidebi Basauri SLren bulegoetan, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako edozein modutan.

### **8. artikulua. — Akatsak zuzentzea**

Aurkeztutako dokumentazioan akatsik badago, edo zerbait falta bada, interesdunek hamar eguneko epea izango dute akatsak zuzentzeko edota falta den hori aurkezteko. Epea zenbatzen hasiko da antzemandako akatsak zuzentzeko edo falta dena aurkezteko errekerimenduaren jakinarazpenaren dataren biharamunean. Epe hori igarota ez badira akatsak zuzendu edota dokumentazioa osatu, eskatzaileak atzera egin duela joko da, eta artxibatu egingo da prozedura. Hori baino lehen, baina, ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua jasotako moduan.

## III. KAPITULUA

### DIRU-LAGUNTZA EMATEA

### **9. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa**

Diru-laguntza, gehienez, diruz lagun daitekeen zenbatekoaren %50ekoa izango da. Muga: 325 euro, hileko eta eskabideko. Bestalde, gehienez ere, urte natural baterako emango da (hamabi hilabete, hamabi ordainketa).

Ordenantza honetan xedatutakoa betetzeko, alokairutik kanpo geratuko dira garaieari, komunitateari eta administrazioari dagozkion gastuak, bai eta kontribuzioak eta arielak ere. Horiek guztiak ez dira aintzat hartuko, errentamendu-kontratuan berariaz jasota egon arren.



Garajea erabiltzeagatiko edo komunitateko gastuak kontratuak jasota egon, eta horien hileroko kostuaren berriazko egiaztagiririk aurkezten ez bada, alokairutik 30 euroko balio finkoa kenduko da hilero, gastu horiek direla eta.

#### **10. artikulua.— Laguntzak ordaintzea**

Diru-laguntza ordainduko da eskabideak aurretiaz aldeko ebazpena jaso eta gero, eta, betiere, onuradunak errenta ordaindu izana egiaztatu eta gero —alegia, errentatzailari banku-transferentzia egin izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero—.

Laguntzak eskatzeko, I. eranskinean jasotako eredia bete beharko da, eta 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsi.

Eskatzaileek aukera bi izango dituzte: laguntza-eskabidea aurkeztu eta, aldeko ebazpena jasotzen badute, ordainketak eskatzea, goian adierazitako moduan; edota laguntza-eskabidea aurkeztea dagokion dokumentazioarekin eta, aldi berean, ordura arte ordaindutako alokairu-ordainagiriak eskatzea.

Laguntzaren zenbatekoa izango da data horretara arte zuritutako alokairu-gastuei dagokiena, alegia, ordura arte errentatzailari alokairu gisa ordaindutakoa.

Aurrekontu-partidan kontsignatutakoa agortzen bada ekonomia-ekitaldia amaitu baino lehen, eta, Ordenantza honetan finkatutako baldintzak beteta ere, eskabideak badaude ebatzi gabe, udalak aurrekontu-kontsignazioa handitu ahalko du, horretarako aukera baldin badago.

Diru-laguntza ordaintzeko epe gisa finkatzen dira, diru-laguntza eskabidearekin batera egindakoez gain, xede horretarako aurrekontu-partida dagoen ekitaldietako uztailaren 1etik 15era artekoa eta abendauren 1etik 15era artekoa.

Diru-laguntza emateko eta hura ordaintzeko tartean onuradunak beste laguntza batzuk eskuratu, eta horiek diru-laguntza honekin bateraezinak badira, edota onuradunaren baldintza pertsonalak edo familiarak aldatzen badira eta Ordenantzak ezarritako baldintzak betetzen ez badira, baliogabetu egingo da diru-laguntza, aurretiaz espedientea berrikusi eta gero.

#### **11. artikulua.— Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin**

Alokairurako diru-laguntzak bateragarriak izango dira xede bera duten beste laguntza batzuekin, baldin eta laguntzok, guztira, ez badute gainditzen diruz lagun daitekeen errentamenduaren %50.

Testuak berriaz baztertzeko dituzten Bizigune edo ASAP programen bidez alokatutako etxebizitzak dituzten gazteak.

Dena dela, gizarte-bazterkeriari eta egoera larriari aurre egiteko Basauriko Udalak ematen dituen banakako diru-laguntzak jaso ditzaketen gazteek ere jaso ahalko dute alokairurako diru-laguntza, ez bada banakako diru-laguntza horietan etxebizitzarako laguntza jaso dutela ja, alokairurako diru-laguntza jaso behar duten ekitaldi berean.

Era berean, alokairurako udal diru-laguntza bateraezina da DSBERi lotutako etxebizitzako laguntza osagarriarekin edota etxebizitzarako laguntza ekonomikoarekin (zeina Eusko Jaurlaritzak ematen baitu).

Ordenantza honek alokairurako emandako laguntzek izaera osagarria izango dute, diruz lagun daitekeen gehienezko zenbatekoaren %50eraino (laguntza bat baino gehiagorik badira, horien kopuru osoari dagokio aipatutako muga).

#### **12. artikulua.— Finantziazioa**

Udal Aurrekontu Orokorrean alokairurako laguntzak finantzatzera bideratutako kreditu-aurrekontuetatik etorriko dira diru-laguntza horietarako baliabide ekonomikoak.

Basauriko Udalak dagokion aurrekontu-partida izango du, eta laguntzak emango ditu egoki denean. Inola ere ez da gaindituko aurrekontuan horretarako kontsignatutako urteko kopurua.



## IV. KAPITULUA

**PROZEDURA****13. artikulua**

Eskumena duen udal organoak edota Bidebi Basauri, S.L.-k, epe barruan aurkeztutako eskabideak aztertu, eta egiaztatuko dute Ordenantza honetan finkatutako baldintzak betetzen dituztela. Baldintzak betetzen direla ziurtatu ostean, ebazpen-proposamena egingo dute, eta proposamen hori Lurralde-politika eta Kontratazioko Informazio Batzordea eramango da, hark bere oniritzia eman dezan.

**14. artikulua**

Lurralde-politika eta Kontratazioko Informazio Batzordeak, proposamena aztertu eta gero, saiora bertaratutakoen gehiengo soilez (gutxienez) eman beharko dio oniritzia proposamenari.

Eskabideak aurkeztu, eta horien espedienteak aurretiaz aldeko fiskalizazioa jaso eta gero, Alkatetzak onetsi ala ezetsi egingo ditu eskabideak.

Laguntzak ordaintzea ere Alkatetzak xedatuko du, programaren arduradunak eta Lurralde-politika eta Kontratazioko ordezkariak aurretiaz proposamena egin eta gero, eta errentamenduaren ordainagiriak aurkeztu ostean. Ordainketa horiek, bestalde, honako aldi hauetan zehar eskatu edota egingo dira:

- Horretarako aurrekontu-partida dagoen aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko uztailaren 1etik 15era, eta abenduaren 1etik 15era.
- Diru-laguntza eskabidearekin eta errenta ordaindu izanaren egiaztagiriekin batera izango da, hau da, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko maiatzaren 1etik 31ra bitartean.

## V. KAPITULUA

**DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA****15. artikulua**

Beharrezkotzat jotako agiriak aurkezteko eskatu ahalko die Basauriko Udalak onuradunei. Bestalde, Udal Zerbitzuek eta Bidebi Basauri, S.L., Udal Sozietateak etxebizitzetara joan, eta horiek ikuskatu ahalko dituzte, eta udal datu-baseak kontsultatu, egiaztatzeke Ordenantza honek ezarritako baldintzak betetzen direla.

**16. artikulua**

Onuradunek, beren aldetik, Basauriko Udalak eta Bidebi Basauri, S.L.-k beren fiskalizazio-lana aurrera eramateko eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuko dute.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

**Lehen Xedapen Gehigarria**

Ordenantza hau indarrean egongo da berau aldatu edota indargabetu arte.

## AZKEN XEDAPENA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Ordenantza honen behin betiko onepenaren testua, eta eragina izango du ekonomia-ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren kontuetarako, honako hauetara joko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2001 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 EDak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra; eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorra (2005eko urtarrilaren 1).

Basaurin, 2019ko maiatzaren 29an. — Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta



BASAURIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BASAURI – HAZ / SAC (Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri) – 944666300 – 944666335 – sac@basauri.eus

**BASAURI**  
Udala • Ayuntamiento**UDAL DIRU-LAGUNTZA EDO  
LAGUNTZA EKONOMIKOA  
ESKATZEKO ORRIA**  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN O AYUDA  
ECONÓMICA MUNICIPALEspediente zk.  
Nº expediente

<b>1.</b> ESKATZAILEA SOLICITANTE	NANa edo IFK / DNI o CIF		IZEN-ABIZENAK edo ERKUNDEAREN IZENA / NOMBRE Y APELLIDOS o RAZÓN SOCIAL		
	JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO NOTIFICACIONES		HERRIA / POBLACIÓN	PK / CP	PROBINTZIA / PROVINCIA
	ERAKUNDEAREN HELBIDEA / DOMICILIO DE LA ENTIDAD		HELBIDE ELEKTRONIKOA / CORREO ELECTRÓNICO	TELEFONOA / TELÉFONO	
<b>2.</b> ORDEZKARIA REPRESENTANTE	NANa edo IFK / DNI o CIF		IZEN-ABIZENAK edo ERKUNDEAREN IZENA / NOMBRE Y APELLIDOS o RAZÓN SOCIAL		
	JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO NOTIFICACIONES		HERRIA / POBLACIÓN	PK / CP	PROBINTZIA / PROVINCIA
	TELEFONOA / TELÉFONO		HELBIDE ELEKTRONIKOA / CORREO ELECTRÓNICO		
<b>3.</b> ESKATZAILEAREN BANKU-DATUAK / DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA SOLICITANTE					
IBAN	BANKUA / BANCO	BULEGOA / SUCUR.	KD / DC	KONTU ZK. / Nº CUENTA	
<b>4.</b> LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA ALOR HONETAN ESKATZEN DU / SOLICITA AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE					
<input type="checkbox"/> ALKATETZA / ALCALDÍA <input type="checkbox"/> GARAPENEAN LAGUNTZEA / COOPERACIÓN AL DESARROLLO <input type="checkbox"/> EUSKARA / EUSKERA <input type="checkbox"/> KULTURA / CULTURA <input type="checkbox"/> HEZKUNTZA / EDUCACIÓN <input type="checkbox"/> GAZTERIA / JUVENTUD <input type="checkbox"/> KIROLA / DEPORTE			<input type="checkbox"/> GIZARTE-POLITIKA / POLÍTICA SOCIAL <input type="checkbox"/> HERRITARREN PARTE-HARTZEA / PARTICIPACIÓN CIUDADANA <input type="checkbox"/> MERKATARITZA-OSTALARITZA / COMERCIO-HOSTELERÍA <input type="checkbox"/> ENPRESAK / EMPRESAS <input type="checkbox"/> ENPLEGUA-KONTRATAZIOA / EMPLEO-CONTRATACIÓN <input checked="" type="checkbox"/> LURRALDE-POLITIKA / POLÍTICA TERRITORIAL <input type="checkbox"/> HIRI SEGURTASUNA / SEGURIDAD CIUDADANA		
<b>5.</b> HONAKO DIRU-LAGUNTZA LERRO HONEN BARRUAN / CORRESPONDIENTE A LA LÍNEA DE SUBVENCIÓN DE:					
<input type="checkbox"/> GAZTEEK ETXEBIZITZA ALOKATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK / AYUDAS ECONÓMICAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA PARA JÓVENES					
<b>6.</b> ZERA AITORTZEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN / DECLARA, BAJO SU RESPONSABILIDAD:					
<input checked="" type="checkbox"/> Norbanako edo erakunde eskatzaileak ADIERAZTEN DU etxebizitza alokatu nahi duten gazteentzako diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak finkatutako irizpideak ezagutu, onartu eta beteko dituela. <input checked="" type="checkbox"/> Norbanako edo erakunde eskatzaileak ADIERAZTEN DU ez duela onuradun izateko debekuetako bat ere ez betetzen (Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek, 2. eta 3. ataletan). <input checked="" type="checkbox"/> Norbanako edo erakunde eskatzaileak ADIERAZTEN DU laguntzaren xede den etxebizitza bete egiten dituela etxebizitza alokatu nahi duten gazteentzako diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak ezarritako baldintzak. <input checked="" type="checkbox"/> Eskatzaileak ADIERAZTEN DU bizikidetzta-unitateko kideetako batek ere ez duela bigarren gradurainoko odolkidetasunezko edota ezkontzako ahaidetasunik etxebizitzaren errentatzailearekin; ez dela haren bazkidea; eta ez dela, etaere, errentatzailea den persona fisiko edo juridikoaren kide edo parte-hartzailea. <input type="checkbox"/> Eskatzaileak ADIERAZTEN DU berak eta bizikidetzta-unitateko kideren batek (horrelakorik badago) beste diru-sarrera batzuk dituztela; edota erantsitako zerrendan adierazitako diru-laguntzak eskatu dizkietela bertan jasotako administrazioei, zenbateko horiekin.			<input checked="" type="checkbox"/> La persona o entidad solicitante DECLARA conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en la Ordenanza Reguladora de Ayudas a Jóvenes para el Alquiler de Vivienda. <input checked="" type="checkbox"/> La persona o entidad solicitante DECLARA que no está incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, previstas en el artículo 13, apartados 2 y 3, de la Ley General de Subvenciones. <input checked="" type="checkbox"/> La persona o entidad solicitante DECLARA que la vivienda objeto de la ayuda cumple las condiciones establecidas en el art. 5 de la Ordenanza Reguladora de Ayudas a Jóvenes para el Alquiler de Vivienda. <input checked="" type="checkbox"/> La persona solicitante DECLARA que ninguno de los/as miembros de la unidad de convivencia tiene parentesco hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad con el o la arrendador/a de la vivienda, ni es socio/a o partícipe de la persona física o jurídica que actúe como arrendadora. <input type="checkbox"/> La persona solicitante DECLARA que ella misma y, en su caso, alguno/a de los/as miembros de la unidad de convivencia dispone de otros ingresos y/o ha solicitado las subvenciones a otras administraciones que adjunto se relacionan y cuantifican.		





7.	ESANBIDEZKO ADOSTASUNA / CONSENTIMIENTO EXPRESO
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>ESANBIDEZKO ADOSTASUNA</b> ematen dio Basauriko Udalar, Lurralde-politika Arloak edo BIDEBI sozietate publikoak honako kontsulta hauek egin ditzaten: Udal, Foru eta Estatu Ogasunari, zerga-zorrik ez dagoela jasotzen duen egiaztagiriari buruz; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorriari, bertako ordainketak eginda daudela egiaztatzen duen agiriari buruz; eta Poliziaren Zuzendaritza Nagusiari, nortasun-datuak kontsultari buruz. Laguntza edo diru-laguntza hau esleitzeko datuen kontsulta egingo da baliabide elektronikoekin —udal sare korporatiboen bitartez; datuak eskualdatzeko plataformen bitartez; edota horretarako egokitutako bestelako sistema elektronikoekin bitartez—.	<input checked="" type="checkbox"/> El/la solicitante otorga <b>CONSENTIMIENTO EXPRESO</b> al Ayuntamiento de Basauri para que el Área de Política Territorial y/o la Sociedad pública BIDEBI consulte, a la Hacienda Foral, Municipal y Estatal el certificado de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias, a la Tesorería General de la Seguridad Social los certificados de estar al corriente de pago, y a la Dirección General de la Policía los datos de identidad, mediante medios electrónicos a través de sus redes corporativas las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, sus datos personales necesarios para la adjudicación de la presente Ayuda o Subvención.
<input checked="" type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>ESANBIDEZKO ADOSTASUNA</b> ematen dio Basauriko Udalar, Lurralde-politika Arloak edo BIDEBI sozietate publikoak kontsulta dezaten, batetik, ea interesduna izena emanda dagoen ETXEBIDEn, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan; eta, bestetik, erregistro horretan aurkeztutako datu ekonomikoak. Laguntza edo diru-laguntza hau esleitzeko datuen kontsulta egingo da baliabide elektronikoekin —udal sare korporatiboen bitartez; datuak eskualdatzeko plataformen bitartez; edota horretarako egokitutako bestelako sistema elektronikoekin bitartez—.	<input checked="" type="checkbox"/> El/la solicitante otorga <b>CONSENTIMIENTO EXPRESO</b> al Ayuntamiento de Basauri para que el Área de Política Territorial y/o la Sociedad pública BIDEBI consulte la inscripción en el Registro de Demandantes del Servicio Vasco de Vivienda ETXEBIDE y los datos económicos aportados a dicho Registro, mediante medios electrónicos a través de sus redes corporativas las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, sus datos personales necesarios para la adjudicación de la presente Ayuda o Subvención.
<input checked="" type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>ESANBIDEZKO ADOSTASUNA</b> ematen dio Basauriko Udalar, Lurralde-politika Arloak edo BIDEBI sozietate publikoak kontsulta dezaten eskatzaileak eta familia-unitateko kide gutziet dagoen urtean jasotako pensio, nomina edo diru-sarreraren egiaztagiria. Horrekin batera, hala badagokio, eskabidea egin den urtearen aurrekoari dagoen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga aitopena ere kontsultatuko da.	<input checked="" type="checkbox"/> El/la solicitante otorga <b>CONSENTIMIENTO EXPRESO</b> al Ayuntamiento de Basauri para que el Área de Política Territorial y/o la Sociedad pública BIDEBI consulte la cantidad que perciba en concepto de pensión, nómina o justificante de ingresos del año en curso respecto de la persona solicitante y de todas las personas de la unidad familiar y en su caso, la declaración del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas del ejercicio inmediatamente anterior a la fecha de la solicitud.
<input checked="" type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>ESANBIDEZKO ADOSTASUNA</b> ematen dio Basauriko Udalar, Lurralde-politika Arloak edo BIDEBI sozietate publikoak kontsulta dezaten eskatzaileak eta familia-unitateko kideek zenbat jasotzen duten Lanbidek kudeatutako etxebizitzarako prestazio osagarri gisa, edota etxebizitzarako prestazio ekonomiko gisa.	<input checked="" type="checkbox"/> El/la solicitante otorga <b>CONSENTIMIENTO EXPRESO</b> al Ayuntamiento de Basauri para que el Área de Política Territorial y/o la Sociedad pública BIDEBI consulte la cantidad que percibe el solicitante o cualquiera de las personas que formen la unidad convivencial en concepto de Prestación Complementaria de Vivienda gestionado por Lanbide, y/o Prestación Económica de Vivienda.
<input checked="" type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>ESANBIDEZKO ADOSTASUNA</b> ematen dio Basauriko Udalar, Lurralde-politika Arloak edo BIDEBI sozietate publikoak kontsulta dezaten eskatzaileak edota harekin bizi den edota biziko den edonork zenbat eskatu duen gizarte-larrialdietako laguntza gisa edota iraunkorrak ez diren Basauriko Udalaren laguntza gisa.	<input checked="" type="checkbox"/> El/la solicitante otorga <b>CONSENTIMIENTO EXPRESO</b> al Ayuntamiento de Basauri para que el Área de Política Territorial y/o la Sociedad pública BIDEBI consulte la cantidad solicitada por el beneficiario o de cualquier personas que conviva o vaya a convivir con el solicitante en concepto de Ayudas de Emergencia Social o Ayudas no permanentes municipales en el Ayuntamiento de Basauri.
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak <b>EZ DIO UDALARI BAIMENIK EMATEN</b> datuak kontsultatzeko, eta, beraz, eskabide honekin batera aurkeztu beharko ditu prozedurari dagozkion aurreko datuak.	<input type="checkbox"/> El/la solicitante <b>NO OTORGA CONSENTIMIENTO</b> al Ayuntamiento de Basauri para la consulta de datos y queda obligado/a a aportar los datos anteriores junto a esta solicitud.

8.	ESKABIDE-ORRIARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR JUNTO A ESTA SOLICITUD
<input checked="" type="checkbox"/> Errentamendu-kontratuen kopia (Eusko Jauraritzaren Etxebizitza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Erregistroan behar bezala inskribatuta egongo da kontratu hori).	<input checked="" type="checkbox"/> Copia del contrato de arrendamiento debidamente registrado en el Registro de la Delegación Territorial en Bizkaia del Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco.
<input checked="" type="checkbox"/> Diru-laguntza bat jasotzen den lehen aldia bada, NANaren fotokopia eta HIRUGARRENAREN FITXA aurkeztu beharko dira.	<input checked="" type="checkbox"/> En el caso de que sea la primera vez que se perciba cualquier subvención, será necesario FOTOCOPIA DEL DNI y FICHA DE TERCERO.
<input type="checkbox"/> Udalar ez bazaio baimenik ematen zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagozkion datuak biltzeko:	<input type="checkbox"/> En el caso de que NO SE AUTORICE al Ayuntamiento a recabar los datos relativos al cumplimiento de obligaciones fiscales y con la Seguridad Social:
1. Udal zergak ordainduta daudela jasotzen duen EGIAZTAGIRIA, hau da, Basauriko Udalak emandako «Udal Ogasunarekiko zerga egoera» agiria.	1. CERTIFICACIÓN acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias municipales, "certificado de situación tributaria con la Hacienda municipal", emitido por el Ayuntamiento de Basauri.
2. OGASUNAREN EGIAZTAGIRIA, zerga-obligazioak egunean daudela ziurtatzeko.	2. CERTIFICADO de HACIENDA acreditativo de que se encuentra al corriente en sus obligaciones.
<input type="checkbox"/> Oinarri espezifikoen diru-laguntza lerro jakin baterako aipatutako <b>BESTE EDOZEIN DOKUMENTU</b> .	<input type="checkbox"/> CUALQUIER OTRO DOCUMENTO que, para alguna línea de subvención concreta, se mencione en las bases específicas.

ESKATZAILEAREN EDO HAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN SINADURA / FIRMA DE EL/LA SOLICITANTE O SU REPRESENTANTE LEGAL

<b>ERREGISTRO ZK.</b> Nº REGISTRO
--------------------------------------

Basaurin, 20.....(e)ko .....ren .....(e)(a)n. / Basauri, a ..... de ..... de 20.....

Emandako izaera personaleko datuak «EXPEDIENTES URBANISMO» fitxategian sartuko ditugu. Fitxategi horren xedea da norbanako eta erakundearen diru-laguntzak kudeatzea. Bestalde, jakin ezazu DBLOK berariar aitortzen dizkizun eskubideak (datuetara sartzea, horiek zuzentzea, deusatzetara eta datuen aurka egitea) egikaritu ahal dituzela, bi modutan: Seguritasuneko arduruekin hurremanean jarrita (lodd@basauri.eus), eta fitxategiaren izena eta zure NANaren zenbakia emanda; ala Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari zuzendutako idatzia aurkeztuta (Kareaga Goikoa 52, Basauri, Bizkaia).

2018\_Sub\_SolicitudEspecificas\_Urbanismo\_v3

Sus datos personales serán incluidos en el fichero «EXPEDIENTES URBANISMO», cuya finalidad es la gestión de las subvenciones a diferentes personas y entidades. Puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición que expresamente reconoce la LOPD, poniéndose en contacto con el/la responsable de Seguridad, a través del e-mail lodd@basauri.eus, indicando el nombre del fichero y facilitando su DNI. También puede ejercer dichos derechos mediante escrito dirigido al Servicio de Atención Ciudadana (Kareaga Goikoa 52, Basauri, Bizkaia).





**BASAURI**  
Udala • Ayuntamiento



**HIRUGARRENAREN FITXA**  
**FICHA DE TERCERO**

**Alta / Alta**  
 **Aldaketa / Modificación**

**1 DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES**

NA – IFK / DNI - CIF	Izen-abizenak - Sozietatearen izena / Nombre y apellidos - Razón Social		
Helbidea / Domicilio			
Udalerría / Municipio	PK / CP	Probintzia / Provincia	
Telefona / Teléfono	Faxa / Fax	E-posta / E-mail	

**2 BANKU-DATUAK / DATOS BANCARIOS**

Erakundearen izena / Nombre Entidad			
Swift BIC kodea / Código Swift BIC			
IBAN kodea / Código IBAN			

**DILIGENTZIA:** Behean sinatzen duenak aurrean zehaztutako datuen erantzukizuna (datu orokorra zein bankukoena) hartzen du bere gain. Datuak adieraziko dute egin beharreko ordainketak zein kontu eta FINANTZA ERAKUNDEren bidez egingo diren eta, horrenbestez, Basauriko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango bertan gerta daitezkeen akats nahiz hutsegiteekngatik.

**DILIGENCIA:** El/La abajo firmante se responsabiliza de los datos detallados anteriormente, tanto generales como bancarios, que identifican la cuenta y la ENTIDAD FINANCIERA a través de las cuales se desean recibir los pagos que puedan corresponder, quedando el Ayuntamiento de Basauri exonerado de cualquier responsabilidad derivada de errores u omisiones en los mismos.

Sinatuta / Firmado: \_\_\_\_\_  
NA / DNI: \_\_\_\_\_  
En calidad de: \_\_\_\_\_ den aldetik  
Data / Fecha: \_\_\_\_\_

Sinadura eta zigilua / Firma y sello

**3 FINANTZA-ERAKUNDEAREN EGIAZTAGIRIA / CERTIFICADO DE LA ENTIDAD FINANCIERA**

Honen bidez goian aipatutako kontuaren titularren datuak zuzenak direla adierazten da. | Indicando la conformidad de los datos del Titular de la cuenta arriba indicada

Data / Fecha: \_\_\_\_\_

Sinadura eta zigilua / Firma y sello

Diruzaintza / Tesorería

944.666.314 / 944.666.305 (Faxa)

Email: [tesoreria@basauri.net](mailto:tesoreria@basauri.net)

Datuak Babesteko Legeak xedatutakoaren arabera (15/1999 LO), inprimaki honetan jasotako datuak fitxategi automatizatu batean gordeko dira, Udala honen barneko eginkizunetarako, bakar-bakarrik, erabiltzeko xedez. Titularak datuok zuzentzeko eskubidea izango du, Legean adierazitako moduan.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley de Protección de Datos (L.O. 15/1999), los datos recogidos en este impreso serán incorporados a un fichero automatizado con la exclusiva finalidad de su uso dentro de este Ayuntamiento. El/La titular de los mismos puede ejercer su derecho de rectificación o cancelación, en los términos de la Ley.